

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2013KO UZTAILA

Bidaia-erien gualdiak % 1,5 murriztu dira uztailean Euskal Autonomia Erkidegoko hotel- establezimenduetan

Bidaia-erien sarrerak % 1,3 murriztu dira, eta Gipuzkoan bakarrik gertatu da hazkundera, % 3,3, hain zuzen.

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan 519.309 gualdi izan dira 2013ko uztailean; horrenbestez, % 1,5eko murrizketa izan da iazko uztailean izandakoekin alderatuta, betiere Eustatek jakinarazitako datuen arabera; 8.162 gualdi gutxiago izan dira, alegia. Urte-ikurterako ikuspegitik, Arabak eta Bizkaiak bilakaera negatiboa izan dute, gualdiek, hurrenez hurren, % 7,2 eta % 5,7 jaitsi baitira. Gipuzkoan, oster, % 5,4 areagotu dira, iazko uztaileko datuekiko.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan 260.235 bidaia-eri sartu dira 2013ko uztailean, iazkoan baino 3.301 sarrera gutxiago; hots, % 1,3 murriztu dira. Azken urtean, bidaia-erien sarrerak % 7,4 gutxiago izan dira Araban, eta % 2,8 gutxiago Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, % 3,3 handitu dira.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gualdiak, bidaia-erien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Uztaila 2013

	Gualdiak		Bidaia-erien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	07/2013	m / m-12 (%)	07/2013	m / m-12 (%)	07/2013	07/2012	plazak		gelak	
							07/2013	p.p.*	07/2013	p.p.*
EUSKAL AE	519.309	-1,5	260.235	-1,3	2,00	2,00	57,8	-1,6	66,4	-1,8
Estatukoak	285.477	-2,4	143.401	-0,2	1,99	2,03	-	-	-	-
Atzerriarrak	233.832	-0,5	116.834	-2,5	2,00	1,96	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	71.638	-7,2	38.024	-7,4	1,88	1,88	50,8	-0,8	59,3	0,9
Estatukoak	48.441	-4,1	24.451	-4,7	1,98	1,97	-	-	-	-
Atzerriarrak	23.197	-13,0	13.573	-11,9	1,71	1,73	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	52.177	-12,6	25.906	-13,0	2,01	2,00	54,7	-2,4	65,8	-0,1
BIZKAIA	230.723	-5,7	120.673	-2,8	1,91	1,97	54,4	-3,8	63,5	-4,5
Estatukoak	132.505	-5,7	68.483	-2,4	1,93	2,00	-	-	-	-
Atzerriarrak	98.218	-5,6	52.190	-3,4	1,88	1,93	-	-	-	-
Bilbao	141.822	-4,6	72.761	-1,9	1,95	2,00	58,8	-3,8	69,1	-4,7
GIPUZKOA	216.948	5,4	101.538	3,3	2,14	2,09	65,1	0,3	73,1	0,0
Estatukoak	104.531	3,0	50.467	5,3	2,07	2,12	-	-	-	-
Atzerriarrak	112.417	7,8	51.071	1,4	2,20	2,07	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	124.673	6,0	53.931	0,2	2,31	2,18	77,0	2,6	85,6	1,4

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentaje-ko puntuko aldea

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETHI)

Iazko uztailarekin konparatuta, atzerriko bidaia-erien sarrerak % 2,5 murriztu dira, estatu barruko bidaia-erienak ia aldaketarik izan ez duten bitartean (% 0,2 murriztu dira). Araban gutxiago izan dira bidaia-eri atzerriarrak (% 11,9) zein estatukoak (% 4,7) aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Bizkaian ere, bi jatorrietako bidaia-erien kopuruak behera egin du: atzerrikoak % 3,4 murriztu dira,


eta estatukoak, % 2,4. Gipuzkoak, aldiz, joera positiboa izan du, eta atzerriko zein estatuko bidaiarien kopurua % 1,4 eta % 5,3 igo da, hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia 2,00 egunekoa izan da, ez da aldatu aurreko urtekoaren aldean. Arabakoa 1,88 egunetan mantendu da; Bizkaian 2012ko uztailako 1,97 egunetik 1,91 egunera jaitsi da aurten, eta handiagoa izan da Gipuzkoan, 2,09 egunetik 2,14 egunera igoz.

Plazakako betetze-maila txikiagoa izan da EAEn; hala, 2012ko uztailako % 59,5etik % 57,8ra igaro da aurtengoan. Araban eta Bizkaian, betetze-maila txikiagoa izan da aurtengo uztailan, Gipuzkoan handiagoa izan den bitartean. Beherakadarik handiena Bizkaian gertatu da, portzentajezko 3,8 puntu gutxiago (% 58,2tik % 54,4ra); Araban portzentajezko 0,8ko beherakada izan da (2012ko uztailako % 51,6tik aurtengo % 50,8ra), eta Gipuzkoan % 65,1eko betetze-maila izan da aurreko urteko % 64,9rekin alderatuta; beraz, 2012an baino 0,2 puntu gehiago izan dira.

Uztailako hotelen betetze-mailarik handiena Donostian erregistratu da (% 77), Gipuzkoako kostaldean ondoren (% 70,6), eta jarraian Bilbon (% 58,8) eta Bizkaiko kostaldean (% 55,1).

1. grafikoa.- Euskal AEko hotel-establezimenduen betetze-mailaren bilakaera egun motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (ETHI)

Asteko egunaren arabera, asteburuan egon da betetze-mailarik handiena 2013ko uztailan EAEn; plazen % 67,7 bete dira, eta lanegunetan, berriz, betetze-maila % 54,4 izan da.

Euskal Autonomia Erkidegoko hotel-establezimenduetan okupatutako langileak % 3,1 gutxiago izan dira 2013ko uztailan, aurreko urtekoekin alderatuta; 4.329 lagun izan dira guztira.

Landa-ostatuetauko gaualdiak % 11,0 murriztu dira uztailean; betetze-maila % 34,2 izan da

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-turismoko establezimenduetan eta landa-etxeetan 44.876 gaualdi izan ziren guztira uztailean; horrenbestez, kopurua % 11,0 jaitsi da aurreko urteko hilabete berarekin alderaturik. Lurraldeei dagokienez, Bizkaian % 19,3 murriztu da; Araban eta Gipuzkoan, berriz, jaitsiera txikiagoak izan dira, % 11,7 eta % 6,5, hurrenez hurren.

Plazakako betetze-mailan ere (% 34,2) portzentajezko 4,4 puntuko beherakada izan da aurreko urteko uztailearekin alderatuta. Gipuzkoan portzentajezko 4,1 puntuko murrizketa izan da; % 43,4ko betetze-maila izan da guztira uztailean. Bizkaiak ere murrizketa izan du (portzentajezko 6,4 puntu), eta plazakako betetze-maila % 31,0 izan da. Araban, betetze-maila % 18,0 izan da; hau da, bi puntu eta sei hamarren gutxiago 2012ko uztailearekin konparatuta.

Bidaia-erien 15.241 sarrera izan dira uztailean EAEko landa-establezimenduetan; aurreko urteko hilabete berean baino % 8,0 gutxiago. Lurraldeei dagokienez, Araban % 0,7 murriztu dira sarrerak, Bizkaian, % 20,2, eta Gipuzkoan, % 3,1.

Atzeretik 2.932 bidaiari etorri dira; hortaz, % 8,9ko beherakada izan da duela urtebete etorritakoen aldean, eta sarrera guztien % 19,2 osatu dute. Estatutik etorritako bidaiariaren sarrerak, berriz, % 7,8 behera egin dute.

Azkenik, bidaiari bakoitzeko batez besteko egonaldia apur bat murriztu da, eta ia-azko 3,04 egunetatik aurtengo uztaileko 2,94 egunetara igaro da.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gaualdiak, bidaiariaren sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Uztaila 2013

	Gaualdiak		Bidaia-erien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	07/2013	m / m-12 (%)	07/2013	m / m-12 (%)	07/2013	07/2012	07/2013	p.p.*
EUSKAL AE	44.876	-11,0	15.241	-8,0	2,94	3,04	34,2	-4,4
ARABA/ÁLAVA	5.010	-11,7	2.145	-0,7	2,34	2,63	18,0	-2,6
BIZKAIA	12.424	-19,3	4.011	-20,2	3,10	3,06	31,0	-6,4
GIPUZKOA	27.442	-6,5	9.085	-3,1	3,02	3,13	43,4	-4,1

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETHI)

Oharra: Ekaineko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta egiteko erabilitako metodologiak aldaketa handiak ekarri ditu eragiketaren fase guztietan; haiei esker emaitzak are gehiago xehatu ahal izan dira, hala geografikoki nola denborari dagokionez. Halaber, erreferentziako esparrua ere eguneratu dugu, eta lehen biltzen ez ziren unitateak erantsi ditugu. Erreferentziako serie osoa 2011ko urtariletik berriro estimatzea ekarri du horrek, data hartatik baitago alderatzeko moduko daturik. Serie homogeneoen lotura egingo du laster Eustatek.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETHI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETHI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua